EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

| |
|---|
| Ordena zkia<br>Nº orden |

# PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS

# HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA

ABRIL 2017 / 2017KO APIRILA

GOI MAILAKO ZIKLOAK / CICLOS DE GRADO SUPERIOR

ATAL KOMUNA / PARTE COMÚN

## LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA
## LENGUA VASCA Y LITERATURA
## GAZTELANIA ETA LITERATURA
## EUSKARA ETA LITERATURA

Abizenak
Apellidos ______________________________
Izena
Nombre ______________________________
N.A.N.
D.N.I. ____________________

IKASLEAREN SINADURA
Firma del alumno/alumna

______________________________

# Dos rombos y un “youtuber”

Si en su casa hay alguien menor de 20 años, probablemente tenga otros problemas, pero no discutirán jamás por el mando de la televisión porque los más jóvenes no ven la tele. Al menos no la ven al modo tradicional. No saben que TVE emite “Cuéntame” los jueves o que Antena 3 ha colocado los martes “Pulsaciones” porque en el caso harto **improbable** de que las sigan lo harán por internet. La red es su hábitat natural y YouTube ha sustituido a la pequeña pantalla en el ocio juvenil...con el riesgo que eso **conlleva**.

No es que tengamos necesariamente en alta estima a los directivos televisivos, pero se entiende que al margen de los prioritarios intereses económicos tienen, aunque sea solo un poco en cuenta a la audiencia. En YouTube, sin embargo, todo vale y los vídeos de interés se mezclan con la moralla, todo expuesto al mismo nivel.

Hace años en la tele salían dos rombos para avisar de que el programa no era apto para niños y cuando quitaron los rombos, los padres vigilaban que los chavales no viésemos muchas escenas de besos. Ahora los chavales ven escenas de cama y de lo que quieren en YouTube, donde se cita gente con mucho que decir y muchos que mejor si no dijeran nada.

Como este “youtuber” que ha sido denunciado por humillar a un hombre que pedía en la calle y del que no daremos ni el nombre para no darle `publicidad. El chaval tiene 19 años y muy poco sentido común, pero presume de no sé cuántos seguidores en internet. Para ellos, la “broma” que le hizo a un **indigente**, al que grabó mientras le daba unas galletas rellenas de pasta. Volvió otra vez para grabarle mientras le preguntaba si le habían gustado.

El “youtuber” ha sido denunciado y el Ayuntamiento de Barcelona se personará como acusación. Este desgraciado debería estar **vetado** en la red pero sin embargo ha hecho de sus ofensas un negocio. Alimentado por millones de adolescentes que consumen estos contenidos sin control de nadie. Sin duda era mucho menos peligroso cuando espiábamos por la rendija de la puerta las pelis de los rombos.

*Yolanda Veiga (adaptado). El Correo, 29 de enero de 2016*

1. **Determina el tema del texto:** *(1 punto)*

-----------------------------------------------------------------------------------------------------

**2. Señala:** *(1 punto)*

**Tipología textual:**--------------------------------------------------------------------------------

**Ámbito de uso:** ---------------------------------------------------------------------------------

**Género textual:** ---------------------------------------------------------------------------------

**3. Teniendo en cuenta el contexto, señala, al menos, un sinónimo de las palabras destacadas en negrita en el texto:** *(1 punto)*

**Improbable:**--------------------------------------------------------------------------------------

**Conlleva:**----------------------------------------------------------------------------------------

**Morralla:**----------------------------------------------------------------------------------------

**Indigente:**---------------------------------------------------------------------------------------

**Vetado:**-----------------------------------------------------------------------------------------

**4. En el texto hay varias palabras entrecomilladas. Podrías explicar el sentido de las comillas en cada caso:** *(1 punto)*

**"Pulsaciones":**-----------------------------------------------------------------------------------

**"Broma":**----------------------------------------------------------------------------------------

**"Youtuber":**--------------------------------------------------------------------------------------

**5. Señala la persona, el tiempo, el modo y la conjugación en la que se encuentran las siguientes formas verbales del texto:** *(1 punto)*

| | |
|---|---|
| **Discutirán** | |
| **Quitaron** | |

| | |
|---|---|
| **Dijeran** | |
| **Deberían** | |

**6. Argumenta en veinte líneas tu opinión sobre "Youtube y la libertad de expresión":** *(5 puntos)*

Estructura el texto con un párrafo de introducción en el que quede clara tu opinión, otros dos desarrollando tus argumentos y tu experiencia y acaba con un párrafo de conclusión.

# Koilara luzeak

KARMELE JAIO

GREZIAREN egoerari buruz hasi ginen berbetan, herri aberats eta herri txiroei buruz hitz egin genuen, batzuen eta besteen arteko diferentziaz aritu ginen, pertsona dirudun eta pobreen artean dagoen amildegi gero eta handiagoaz... Munduaz aritu ginen, batzuentzat zerua eta beste askorentzat infernu bilakatu den lurralde honetaz.

Eta halako batean, lagunak infernua eta zeruaren arteko diferentziaz galdetu zigun. Ba al dakizue zein den diferentzia? Eta gure isiltasunaren aurrean koilara luzeen ipuina ba al genekien galdetu zigun. Ezetz guk. Eta ipuina kontatzen hasi zen.

Dirudienez, infernuan dagoen jendeak koilara luze-luzeak ditu eskuetara lotuta. Janaria hartzeko unean, denak mahaiaren inguruan eseri eta bakoitza janaria hartzen saiatzen da, baina hain dira luzeak dituzten koilarak, ezin dute janaririk ahora eraman, bidean dena jausten zaie, eta duten janari guztia alperrik galduta geratzen da. Horrela, hainbeste janariren aurrean dauden arren, goseak hiltzen geratzen dira. Infernuan, beraz.

Zeruan dagoen jendeak -azaldu zigun lagunak-, koilara luze-luzeak ditu eskuetara lotuta baita ere. Janaria hartzeko unean, denak mahairen inguruan eseri, eta koilara luzearekin bakoitzak bere ahora janaria hurbiltzea ezinezkoa dela ikusita, janaria koilaran hartu eta aurrean daukatenari ematen diote. Batak besteari, eta horrela pozik geratzen dira, mahaian zegoen janari guztia janda. Zeruan daude.

Mundu guztia omen dago krisian murgilduta. Krisia mundiala da, bere zentzurik txarrenean. Koilara luzeen garaia omen da. Baina arazo larriena ez da ze baliabide dauden, hauek nola erabili eta banatzen ditugun baizik. Koilara luzeen garaia izan arren, mundu hau zeru edo infernu bihurtu, gizartea nola antolatzen den araberakoa da. Egungo eredu bidegabeko honekin zail xamar izango dugu infernutik irtetea.

**1.- Testuaren komunikazio-egoeraren elementuak deskribatu (erabilera-eremua, igorlea, hartzailea, helburua, testu-tipoa, testu generoa...) eta arrazoitu erantzuna.** (1 puntu)

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------------------

**2. Markatu egiazkoak (E) ala gezurrezkoak (G) diren azpiko esaldiak, testuan esaten denaren arabera. Gezurrezkoak direnak zuzendu, edo esan zergatik diren okerrak.** (1,5 puntu)

| | E | G |
|---|---|---|
| 1. Lagunak eztabaidan ari ziren nola konpondu daitekeen mundua erabakitzen. | | |
| 2. Besteak beste, Greziako egoera izan zuten hizpide. | | |
| 3. Infernuan daudenek berekoikeria erakusten dute. | | |
| 4. Zerua elkarri laguntzea da. | | |
| 5. Munduak ez du baliabiderik falta, baizik eta horiek erabiltzeko modu txarra. | | |
| 6. Munduak duen eredu bidegabea aldatu arren, ez ginateke infernutik aterako idazlearen iritziz. | | |
| 7. Idazlearen ustez, mundua zerua edo infernua izatea gizakion esku dago. | | |

| | | |
|---|---|---|
| 8. Ondorio gisa dio mundua infernua dela eta gu zeruan bizi garela. | | |
| 9. Testuaren helburua da gaur egungo arazoez gizarteak duen jokabidea kritikatzea. | | |

(erantzun okerrak zuzentzeko tartea)

---------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------

---------------------------------------------------------------------------------------

------------------------------

**3.- Zein da testuaren gaia?** (0,25 puntu)

A. Gizartearen berekoikeria
B. Gizarteko arazo konponezinak
C. Koilara luzeak
D. Krisia gure gizartean

**4.- Zein da testuaren ideia nagusia?** (0,5 puntu)

.........................................................................................................
.........................................................................................................
...........

**5.- Zer dira koilara luzeak?** (0,25 puntu)

.........................................................................................................
.........................................................................................................
..........

**6.-Testuak bost (5) paragrafo ditu. Laburbildu paragrafo bakoitzak aipatzen duena** (1,5 puntu)

| | |
|---|---|
| 1. paragrafoa | |
| 2. paragrafoa | |

| | |
|---|---|
| | |
| 3. paragrafoa | |
| 4. paragrafoa | |
| 5. paragrafoa | |

**7.-Testuko hitz batzuen definizioak dituzu azpiko koadroan, bilatu testuko zein hitz dagokion definizio bakoitzari.** (0,6 puntu)

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Ondasunik ez duena, pobrea. | |
| 2 | Lurrazalean gertatzen den horma-moduko ebaki sakona; inor erraz eror daitekeen pendiz handia. | |
| 3 | Bihurtu, egoera edo itxura batetik beste batera aldatu. | |
| 4 | Erori. | |
| 5 | Hiztunak ziurtasunik ez duenean, baina hala jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula. | |
| 6 | Antza denez. | |

**8.-Berridatzi testuko esaldi hauek parentesi arteko hitzak baliatuz.**(0,9 puntu)

- Bakoitzak bere ahora janaria hurbiltzea ezinezkoa dela ikusita, janaria koilaran hartu eta aurrean daukatenari ematen diote. (-(r)ik)

  ------------------------------------------------------------------------------------------------

  ----------------------------------------------------------------------------------------

- Koilara luzeen garaia izan arren, mundu hau zeru edo infernu bihurtu, gizartea nola antolatzen den araberakoa da (Nahiz eta)

  ------------------------------------------------------------------------------------------------

  ----------------------------------------------------------------------------------------

**9.- IDAZLANA** (3,5 puntu)

**EGOERA.** Munduak egoera latzak bizi ditu eta zu kontzientziatuta zaude. Gaur albiste hau irakurri duzu egunkari digitalean.

**HANKEKIN ETA ARIMAREKIN**

**Pasaiako Ogi Berri Azkuene Triatloi Taldeko sei kidek 100 kilometroko lasterketa bati, mendikoa, egingo diote aurre asteburuan, Madrilen. 32 orduko muga dute hori egiteko**



Larunbatean hasiko den 100 kilometroko erronkak elkartasun helburua du: Oxfam Intermon GKEren alde dirua biltzeko da. Horregatik, talde bakoitzak —orotara 175 daude— gutxienez 1.500 euro bildu behar izan ditu Trailwalker izeneko proba horretan parte hartzeko. Intermon Oxfam gobernuz kanpoko erakundeari laguntzeko da lehia, Oxfam Trailwalker Madrid izenekoa.

**EGITEKOA:** lagunei emaila bidaliko diezu eta bertan azaldu zer egingo duten neska horiek eta zertarako erabiliko den dirua. Horrez gain, lagunak konbentzitu behar dituzu diruz laguntzeko Intermon Oxfam erakundeari. Guztira, 200 bat hitz idatzi behar dituzu.

*** Oso inportantea da testua ondo antolatzea. Beraz, kontuan hartu honako aholku hauek idazten hasi aurretik:

- Testuaren zirriborroa egin ideiak antolatzeko.
- Kontuan hartu eskatutako testuaren egitura:
  - Sarrera idatzi eta gaia kokatu lehenengo paragrafoan.
  - Ideiak paragrafotan antolatu
  - Ez ahaztu testuaren helburua: informazioa emateaz gain, lagunak konbentzitzea.
  - Gogoratu, gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzula
- Idatzi ondoren, errebisatu eta azken zuzenketak egin entregatu baino lehen.
- Zirriborroa azterketarekin batera eman.

**Testua zuzentzeko, honako ezaugarri hauek balioetsiko dira:**

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe).
- Esaldien eta pasarteen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei);
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta lexiko eta egituren aberastasuna.

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

--------------------------------------------------------------------------------

Hitz kopurua _______